

## *Itsasoa opari*

-...orduan, arpoia ateratzen zuten istriborretik, eta indartsu botatzen zioten intzirika zebilen baleari. Marruak egundokoak ziren, muauh, muauh. - Amona Teresak, arpoiak berari botako balizkiote bezala kontaktzen zuen aldiro eszena hura, begiak betaurrekoen gainetik ateratzen zitzaizkion saltoan, eta besoetako azal eroria alde batetik bestera mugitzen zitzaion. - Eta ondoren, bizkotxo zati batekin eta sagardo trago batekin ospatzen zuten balentria, txooootx!

-Txootx! - esan zuen Ametsek ere eskuetan zuen sagardo botila altxatuz. Amona Teresak kontaktzen zion istorioa goitik behera zekien, baina lehengo aldia balitz bezala entzuten zuen euskal arrantzaleek, tartean bere bir, bir, bir aitona Jexuxek, Ternuako ur izoztuetan izandako abentura. - Eta hemen dugu, aitona Jexuxen itsasoa.

Ametsek eskuetan zuen sagardo botilari begiratzen zion. Baserrian, egongelako apal batean ezagutu zuen beti botila berezi hura. Gerora jakin zuen bere istorioa.

Aitona Jexux, amonaren amaren aitaren aita zen. Euskaldun askorekin batera, balea arrantzan ibili zen Ternuan, eta itsasoa izugarri maite zuela zion amonak. Jexux, ordea, baserrian jaio eta baserrian hazitakoa zen. Itsasoan pasatzen zituen hilabete luzeetan, ez omen zuen baserriarekin gogoratzen ez zen egunik. Handik bueltan baserrira itzultzean baina, ezin itsasoa ahaztu. Horregatik erabaki zuen, arrantza bidaietan baserriko baratzako lurra, zapi batean bilduta, poltsikoan eramatea. Baserrian zegoenetan, itsasoa gertu izateko, itsaso zati bat gorde zuen sagardo botila hartan. Ordutik, gaur arte, itsasoa dago Ametsen baserrian.

-Ba al dakizue, aurrekoan telebista berria ekarri genuela etxera? Berrogeita hamar zentimetro luze baino gehiago ditu, supermega handia. - Eskolako patioan hala esan zuen Anek, bi besoak ahalik eta gehien zabalduz.

-Gure etxean besaulki bat daukagu, berri berria, gainean eseri eta masajeak ematen dizkizuna. Demasa! - Jokinek, besaulkiaren masajeak irudikatu nahian, gorputza mugitzen zuen tximista batek jo balu bezala.

-Ba guk etxean itsasoa daukagu. - Ametsek ez zuen keinurik egin. Aurrez, sekula ez zion inori euren etxeko sekretuaren berri eman, baina telebista eta besaulkiaren huskeriak entzunda, ezin eutsi.

-Itsasoa? Gezurtero patatero! Baserrian bizi zarete, nola izango duzue itsasoa baserrian? - Lagunek barre egin zioten Ametsi. Minduta, aitona Jexuxen istorioa kontatu gabe alde egin zuen etxera.

Ez zuen gezurrik esan, ondotxo zekien hori Ametsek, eta lagunei ikustarazteko, sagardo botila eraman behar ziela pentsatu zuen. Etxera joan eta botilari begira jartzean ordea, ordura arte ikusi gabeko kolore tristea antzeman zion: ura zikinduta zegoen, gatz usaina apalduta, eta han ez zegoen arrainik. Arrazoi zuten lagunek. Ez

zuten itsasorik baserrian. Ametsek, triste pasa zuen eguna, belarretan, zerura begira etzanda, hodei formekin jolasteko ere gogorik gabe.

Baina iritsi zen irailaren 8a. Ez al dakizue zein egun den irailaren 8a? Kizkitzako Amaren Eguna eta Ametsen urtebetetze eguna! Apuntatu agendan! 10 urte betetzera zihoan aurtengoan, bi eskuetako hatz guztiak, oso-osorik. Ingurukoak, halako zenbaki borobila ospatzeko zer nahi zuen galdezka hasi zitzaizkion. Ametsek garbi zuen: itsasoa.

-Ametz, polita, baina nola oparituko dizugu itsasoa? Ezinezkoa da, ez dago salgai!

-Maitasuna ere ez, eta elkarri oparitzen diogu ba! - Ametsek ez zuen pentsatu gabeko oparia eskatu.

-Bai, Amets, baina, itsasoa arrainen eta itsasontzien bizitoki da, eta ezin ditugu horiek denak ekarri.

-Baserria ere ardien eta dolarearen bizitoki da, eta guk txakur txiki bat besterik ez dugu! Nik itsasoa nahi dut.

Ahalegindu ziren ideia hura burutik kentzen baina Ametsek ez zuen aldatzeko imintziorik egiten. Iritsi zen irailaren 8a. Esnatu zen Amets, gosaldu zuen arrapaladan eta esnari azken tragoa eman bezala, amona balde handi batekin azaldu zen sukaldera.

-Zure eguna da gaur, eta zure nahia beteko dugu. Itsasoa ekarriko dugu baserrira. - Hura zen poza Ametsena, saltoka, bibaka besarkatu zituen etxeko denak. Eta itsasoa baserrira ekartzeko espedizioari ekin zioten: baserriko sei balde hartu, eta Zumaiako Itzurungo hondartzara joan ziren izagirretarrak, aita, ama, amona eta Amets. Iraila izaki, uda eta hondartza zaleak itsasoa agurtzen ari ziren pixkanaka, eta ahalik disimulatuen bete zituzten baldeak. Baserrian, bezperako egunetan atzeko zelaian egindako zuloan jaurti zuten itsasoko ura. Zuloa, hondar, maskor, eta harri puskez inguratu zuten. Horratx, Ametsek nahi zuen itsasoa.

Egun zoragarria izan zen. Lagunak gonbidatuta zeuden etxera askarira, eta harro-harro erakutsi zien bere urtebetetzeko oparia. Denek alde egindakoan, harri baten gainean eseri zen Amets, sagardo botila eskuan, ilargia noiz etorriko zain. Azaldu zen ilargia, distiratsu, bete betea izateko egun gutxiren faltan, baina ez zen gertatu Ametsek esperotakorik.

Aitona Joxeren istoriotik itsasoak liluraturik zeukan Amets. Irakurri zuenaren arabera, itsasoko olatuak ilargiak sortzen zituen magikoa zirudien erakarpen indar batez. Hortaz pentsatu zuen itsasoa oparitzat eskatzean, baina ez zitzaion arazo bat iruditu: baserrikerian zegoen guztietan ikusten zen ilargia. Beraz, baserriko itsasoa argiztatu, eta olatuak aise sortuko zituen zeruko gazta zatiak. Logikoa zen. Baina ez zen halakorik gertatu. Ilargia azaltzen zen, eder bezain distiratsu, eta baserriko urek bare

bezain geldi jarraitzen zuten. Egunak joan, gauak etorri, berdin. Eta euri zaparrada batek gezatu zuen ur gazia; eta haize, bolada batek eraman zuen hondarra noranahi; eta orbelak itsas azala hosto putzu bihurtu zuen.

Egun batean itsaso izan zen hartara, bi malko erori zitzaizkion Ametsi. Amona Teresak bazuen egon behar zen momentuetan azaltzeko abilezia, eta biloba hala ikusita, besarkada estu bat eman, eta zerbait kontatu zion belarrira. Aurpegian kabitzen ez zitzaion irribarrea atera zitzaion Ametsi. Nahi al duzue jakin zer kontatu zion amona Teresak? Zer egin zuten hurrengo egunean, amonak eta Ametsek?

Gauen, nik zuei kontatu dizuedan istorioa idatzi zuten paper batean; zein zen Ametsen desira, nola lortu zuten itsasoa baserrira ekartzea, zenbat maite zuten itsasoa eta zenbat maite zuten aitona Jexux. Kontakizuna urteetan baserrian egondako sagardo botilan sartu, eta itsasora jaurti zuten, uste osoko, aitona Jexuxi iritsiko zitzaiola.

Orain zuk ere badakizu istorioa. Itsasoak botila adina kontakizun, oroitzapen, kantu gordetzen ditu. Aitona Jexuxena topatzen baduzu inoiz, utziezu olatuei beren bidea egiten.